

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIAKO UDALA

**2020ko otsailaren 3ko 43 zk.dun Alkatetza-ebazpena. Horren bidez, 2020 urtean Zigoitia udalerrian herriko jaiak antolatzeko dirulaguntza deialdia egin da, norgehiagoka bidezko lehiaketa-prozedura bidez**

BDNS(Identif.): 495378

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat eginez, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsultatu daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke: Zigoitiko udalerrian legez eraturta eta erregistraturta dauden kontzejak.

#### **Bigarrena. Onuradunak**

Dirulaguntzaren helburua da Zigoitiko udalerriko herrietako jaiak eta/edo erromeriak finantzatzen laguntzea, honako xedearekin:

- Herritarren parte-hartzea bultzatzea, herrietako jaien antolakuntzan eta gozamenean.
- Bizikidetzaren aberastean lagunduko duten aisialdi eta kultur jarduerak antolatzen laguntzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Diru-laguntza hauen kontzesioaren oinarri arautzaileak hemen daude jasota: herrietako jaietarako diru-laguntzak emateko Ordenantza espezifikoak, 2016ko apirilaren 20an onartua, eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialaren 64 zk.an argitaratua 2016ko ekainaren 6an.

Diru-laguntza hauek emateko prozedura, norgehiagoka bidezko lehiaketaren erregimenaren menpeko izango da. Aurkeztutako eskaeren konparaketa egingo da, eta eskaeren lehentasunaren arabera ordena ezarriko da, deialdi honetan zehaztutako balorazio-irizpideekin bat eginez. Esleipena, hurrengo puntuan zehaztutako muga kontuan hartu eta aipatutako irizpideak ezarrita balorazio handiena jasotzen dutenentzat egingo da.

#### **Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa**

Deialdi honetan ezarritakoa betez aurkeztutako eskaeren arabera emandako diru-laguntzen finantzaketa honako aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio: 2020ko aurrekontuaren 338.434.000 zenbakiduna, "Udalerriko kontzekuen jaietarako diru-laguntzak" izena duena.

Deialdi honetako laguntzen gehieneko zenbateko osoa 20.000 eurokoa da. Zenbateko osoaren gehieneko kopuru hori zenbatetsia da; hori dela eta, dirulaguntzen banaketa, kontzesioaren ebazpena egiten den unean nahikoa kreditu egokitzearen arabera izango da. 2020ko ekitaldian onartutako aurrekontu-kreditua hasieran zenbatetsitako kopurua baino handiagoa balitz, organo kudeatzaileak deialdiari kreditu hori ezarri edo ez erabaki ahal izango du, ebazpena egin baino lehen dagokion espedientearen izapidetzea egin eta gero, deialdi berri bat egiteko beharrik gabe.

Erakunde bakoitzari egokitutako gehienezko kopurua, eskaeren artean aurrekontu-partidaren zuzkidura kopuru berberetan banatuta kalkulatu da. Inoz ere ezingo da diruz lagundu zuritutako gastuaren ehuneko ehun baino gehiago.

Aurrekontu partidaren kreditu-soberakina egongo balitz, dirulaguntzaren gehienezko kopurua eskaeren artean partidaren zuzkidura kopuru berberetan banatzearen ondorioz ateratako kopurua baino handiagoa izan ahal izango da.

Hala ere, Udal honek tramitazio berezia eman ahal izango die interes bereziko zenbait programa zehatzi, beti ere, dirulaguntzen zenbaketa osoak ez badu Zigoitiko Udalaren aurrekontu orokorrean helburu horretarako izendatutako aurrekontu aplikazioetan esleitutako kopurua gaituzten.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak eta justifikazioa, zazpigarren puntuan zehaztutako dokumentazioarekin batera, aurkezteko gehienezko epea, 2020ko abenduaren 30ean bukatuko da.

#### **Seigarrena. Bestelako datuak**

Eskabidearekin batera, ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskabide ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Diruz lagundutako jarduera(k) egiteak ekarritako gastuen egiaztagiriak: fakturak edo baliario frogagarria duten kontabilitate-dokumentuak eta baliokideak: jatorrizkoak edo fotokopia konpulsatuak.

Ez dute gastua zurituzeko balioko, ondorengo datuak argi eta garbi erakusten ez dituzten ordainagiri, faktura, ticket etab.ak:

Jaulkitzailea, bere izena edo izen soziala eta NANA edo IFZ adierazita.

Jasotzailea, bere izen soziala eta IFZ jasota (dirulaguntza jasotzen duen erakunde onuraduna izan behar du).

Gastuaren helburua.

Data.

BEZa: aplikatutako zerga tasa(k).

Programen aleak bertan, Zigoitiko Udalaren babesletza aipatu beharko da.

Ondategin, 2020ko otsailaren 3an

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*